



CARITASEN KANPAINA

2017.eko APIRILAREN 2a

GARIZUMA aldiko V. DOMEKEA (A)

“EKONOMIA SOLIDARIOA”

**“Bizi modua
GANORAZ
ERATU”**

Liturgi lagungarriak

Atarikoak:

- ✚ Gogoratu, Liturgi lagungarri honeek alkarte bakoaren inguruabarretara egokitzea ezinbestekoa dala gogoratu gurako geunke. Horretarako, Caritasetik bialtzen diran materialak irakurtea komeni da.
- ✚ Egokia da kartelak sasoiz ipintea eta aurreko domekan jardunaldia iragartea.
- ✚ Ondo legoke parrokiako Caritaseko boluntarioek gaurko ospakizunetan buru-belarri jardutea.
- ✚ Jardunaldi eta kolekten ospakizunerako emondako jarraibideak errespikatuz, gaurkoa sarrerako oharrean, Jaungoikoaren herriaren otitzean eta diru-batzearen aurreko oharrean aitatuko dogu.
- ✚ Homiliaren oinarria, beti lez, hots egindako Jaungoikoaren Hitza izango da. Kanpaina egokitasunez aurkezteko eta txertatzeko, irakurri, arren, Caritasek bialtzen dituan lagungarriak.

SARRERAKO OHARRA

Anai-arrebok:

Garizuma aldiko bosgarren domeka dogu gaurkoa. Bizirako deia da gaur nabarmenduko dana. Lazaroren biztueraren kontakizuna biziari eta berbizkudean sinisteari buruzko katekesi handia da. Jesus heriotza baino sendoagoa da; bizia emonez amaitzen da bere bizitza.

Kristo berbizkunde eta bizi osoa dala erakusten deusku horrek, baina, aldi berean, pekatu eta heriotzazko gure hilobietatik atarateko deia da.

Caritasen jardunaldia ospatzen dogu gaur. Mezu hau helarazoten deuskue: “Caritasen ekonomia solidarioa bultzatzen dogu, gizon eta emakumeak erdian jarriz. Gaur, «bazterketaren eta desbardintsunaren gizarteari ez!» esan behar deusagu.

CAMPAÑA DE CÁRITAS

2 de ABRIL de 2017

V DOMINGO DE CUARESMA (A)

“ECONOMÍA SOLIDARIA”

**“Las mejores cosas de
la vida SE HACEN DE
OTRA FORMA”**

Subsidios litúrgicos

Notas previas:

- ✚ Recordemos la necesidad de que estos subsidios se adapten a las circunstancias de cada comunidad. Para ello es muy conveniente leer los materiales que se envían desde Caritas.
- ✚ Es muy oportuno poner los carteles con tiempo y avisar de la Jornada el domingo anterior.
- ✚ Estaría bien que el voluntariado de Caritas de la parroquia participara activamente en las celebraciones de hoy.
- ✚ Respetando las orientaciones dadas para la celebración de las Jornadas y colectas, hacemos mención de la de hoy en la monición inicial, en la oración de los fieles y en la monición que motiva la colecta.
- ✚ La homilía se basará, como de ordinario, en la palabra de Dios proclamada. Para la oportuna aplicación y referencia a la Campaña sugerimos la lectura de los materiales que Caritas envía.

MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos:

Hemos llegado al quinto domingo de Cuaresma. Toda la celebración de hoy, con el relato evangélico de la resurrección de Lázaro, nos va a hablar e invitar a la vida y a la fe en la resurrección. Jesús es más fuerte que la muerte; termina su vida dando vida y vida en plenitud.

Es todo un signo de que Cristo es la resurrección y la vida en plenitud, pero también una llamada a salir de nuestros sepulcros de pecado y de muerte.

Caritas se hace presente entre nosotros de un modo especial este domingo y nos dice: “En Caritas impulsamos la Economía Solidaria situando a las personas en el centro. Hoy tenemos que decir «no a una economía de la exclusión y la inequidad».





Ekonomia hori hiltzailea da. Hartu-emon ekonomikoetarako eremu barria behar dogu, irabazi ekonomikoen metatzea lehenetsiko ez dauan eta gizon eta emakume guztioi dagokiguzan giza eskubideak errespetatuko dituan eremua. Personak izan behar dau edozein jarduera ekonomikoren helburua eta ez bitartekoa”.

Zutunik, abestuz ekingo deutsagu Hitzaren eta Eukaristiaren ogiaren indarra emongo deuskun ospakizunari.

SARRERAKO ABESTIA

ABADEAREN AGURRA

Jesukristo Biziaren Jaunaren grazia eta ba-
kea, zuekin.

DAMU OTOITZA

Bihotz-barritzearen eta parkamenaren bi-
tartzet heriotzatik Jaungoikoaren Bizira igaro-
teko dinosku Jesus Jaunak. Apaltasunez, eskatu
daigun gure pekatuen parkamena.

“Autortzen deusat...”

- Jaungoiko ahalguztiduna...
Erruki, Jauna...

OHARRA 1. IRAKURGAIARI (Ez 37, 12-14)

Profetaren bitartez, Jaungoiko Jaunak itxa-
ropenez betetako hitzak esaten deutsez Babilo-
nian itxaropen barik erbesteratuta dagozanei.
Bizia eta gurasoen lurra itzuliko deusaz herriari.

OHARRA 2. IRAKURGAIARI (Erm 8, 8-11)

Espirituaren doeak erabat aldatzen dau sinis-
tedunen izaera. Eurentzat Kristo biztuerako Paz-
koa izango da bizirako sarrera.

EBANJELIOA

Esa economía mata. Necesitamos un nuevo
marco de relaciones económicas en el que la prio-
ridad no sea sólo la acumulación del beneficio eco-
nómico y en el que se respeten los derechos huma-
nos de todas las personas. La persona, ha de ser
considerada como el fin y no como un medio en
cualquier actividad económica”.

Iniciamos la celebración en la que recibiremos
la fuerza del pan de la Palabra y de la Eucaristía.

CANTO DE ENTRADA

SALUDO DEL PRESIDENTE

La gracia y la paz de Jesucristo, el Señor de
la Vida, estén con todos vosotros.

ACTO PENITENCIAL

El Señor Jesús, a través de la conversión y
el perdón, nos llama a pasar de la muerte a la
Vida de Dios. Con sencillez y humildad, pida-
mos perdón por nuestros pecados (instantes
de silencio):

“Yo confieso...”

- Dios todopoderoso...
Erruki, Jauna... / Señor, ten piedad...

MONICIÓN a la 1ª LECTURA (Ez 37, 12-14)

Por medio de su profeta, el Señor Dios di-
rige palabras de esperanza a los deportados
sin esperanza en Babilonia. Él hará que su
pueblo vuelva a la vida, lo devolverá a la tierra
de sus padres.

MONICIÓN a la 2ª LECTURA (Rm 8, 8-11)

El don del Espíritu cambia radicalmente la
condición de los creyentes. Para ellos será
Cristo Pascua de resurrección, entrada en la
vida.

EVANGELIO

JAUNGOIKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Apaltasunez, aurkeztu deioguzan Biziaren Jaungoikoari gizadi osoaren beharrianak:

- Eleizaren alde. Jaungoikoak eskaintzen deuskun bizia keinuz eta hitzez iragarri daian.

Eskatu deiogun Jaunari.

- Agintarien alde. Guztion onaren alde eta guztion esanetara dagoan bestelako eredua proposatzen dauan ekonomia solidarioa suspertu daien.

Eskatu deiogun Jaunari.

- Caritasen alde. Behin eta barriro egin daian ekonomia gizatasunez beteteko eta ondasunak kristautasunez bantzeko deia.

Eskatu deiogun Jaunari.

- Gu guztion alde. Erreinuaren zeinu bizi izan eta bizia eta bakea zabaldu daiguzan gure inguruan.

Eskatu deiogun Jaunari.

Aita, biziaren egilea, begiratu errukiz gaur heriotzaren ilunpetan bizi garanoi eta, zure Espirituaren egintza bizitzailearen bidez, barritu eta aldatu gure bizitzak.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

OHARRA DIRUA BATU AURRETIK

Gaur batzen dan dirua **Elizbarrutiko Caritasen** esku itziko da Onuradun izango diran guztien izenean, **ESKERRIK ASKO eskuzabaltasunez** jokatzegaitik.

ORACIÓN UNIVERSAL

Con actitud humilde, le presentamos al Dios de la Vida las necesidades de toda la humanidad:

- Para que la Iglesia transmita, con sus gestos y palabras, la vida que Dios nos ofrece y desea.

Roguemos al Señor.

- Para que los responsables en los gobiernos de los pueblos se empeñen en favorecer métodos de economía solidaria que proponen y trabajan por un modelo distinto, al servicio del bien común y que están al servicio de las personas.

Roguemos al Señor.

- Para que Cáritas no deje de invitar a reflexionar sobre cómo humanizar la economía y participar de la comunicación cristiana de bienes.

Roguemos al Señor.

- Para que nosotros seamos signos vivos del Reino, comuniquemos vida y paz en nuestro entorno.

Roguemos al Señor.

Padre y autor de la vida, mira compasivo a quienes hoy vivimos en sombras de muerte y, por la acción vivificadora de tu Espíritu, renueva y transforma nuestras vidas.

Por Jesucristo, nuestro Señor.

MONICIÓN A LA COLECTA DE DINERO

La colecta de hoy será destinada a **Cáritas Diocesana**. En nombre de quienes se han de beneficiar de ella, **MUCHAS GRACIAS** por vuestra **generosidad**.





JAUNARTZEAREN OSTEKO ISILUNERAKO

Anai-arreba maiteok, Garizuma aldia sasoi egokia da Kristo biziagaz bere Hitzean, sakramentuetan eta lagun hurkoagan bat egin eta barritzeko. Jaunak –basamortuan emon ebazan berrogei eguntan, Tentatzailearen probak gaintitu ebazanak-jarraitu behar dogun bidea erakusten deusku.

Espiritu Santuak gidatu gaizala bihotz-barritzeko benetako bidea egin daigun, Jaungoikoaren Hitzaren doea geure egin daigun, itsutzen gaituan pekatutik garbitu gaitzan eta anai-arreba behartsuengan dagoan Kristoren zerbitzari izan gaitzan. Dei egiten deutset fededun guztiei, barritze espiritual hori erakutsi daien munduko hain bat lekutan Eleizaren hainbat erakundek Garizuma aldian, giza familia bakarrean bat egitearen kultura areagotu daiten, suspertzen dabezan kanpainetan parte hartuz.

Otoitz egin daigun alkarren alde, Kristoren garaipenean parte hartuz, makalei eta behartsuei gure ateak zabaltzen jakin daigun. Orduan bizi izango dogu Pazkoaren poztasuna eta horren lekukotasuna emongo dogu.

Francisco Aita Santuak
Garizuma aldirako zabaldu dauan mezutik
2017

PARA EL SILENCIO DESPUÉS DE LA COMUNIÓN

Queridos hermanos y hermanas, la Cuaresma es el tiempo propicio para renovarse en el encuentro con Cristo vivo en su Palabra, en los sacramentos y en el prójimo. El Señor –que en los cuarenta días que pasó en el desierto venció los engaños del Tentador– nos muestra el camino a seguir.

Que el Espíritu Santo nos guíe a realizar un verdadero camino de conversión, para redescubrir el don de la Palabra de Dios, ser purificados del pecado que nos ciega y servir a Cristo presente en los hermanos necesitados. Animo a todos los fieles a que manifiesten también esta renovación espiritual participando en las campañas de Cuaresma que muchas organizaciones de la Iglesia promueven en distintas partes del mundo para que aumente la cultura del encuentro en la única familia humana.

Oremos unos por otros para que, participando de la victoria de Cristo, sepamos abrir nuestras puertas a los débiles y a los pobres. Entonces viviremos y daremos un testimonio pleno de la alegría de la Pascua.

Papa Francisco
Mensaje para Cuaresma
2017



Caritas
Bilboko Elizbarrutikoa
Diocesana de Bilbao